



3./

## JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko abenduaren 29an, **683** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“IKUSIRIK: KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEAren helburua abesbatza talde bat eratzea da, Barrundiako eta Donemiliagako udalerrietako pertsoez osaturik.

Helburu hori lortzeko, jarduera hauek egin dira:

- a. Barrundiako eta Donemiliagako udalerrietako herritarrez osatutako abesbatza sortu izan da.
- b. Asteroko entseguak burutu dira, ahots askoko kantu-moldean behar besteko gaitasun eta trebezia lortzeko asmoz.

**GERTUA IZANIK:** Kataliturri Abesbatza Taldearen azken helburu zuzena kantarako bai Barrundiako udalerrian eta baita ere Donemiliagako udalerrian zaletasuna bultzatzea da, hein berean, udalerrri bi horietako eskaintza kulturala egonkortzea.

**KONTUAN HARTUZ:** KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEAK 2020ko urtean COVID-19 izurritea dela eta, ezin izan du ekitaldirik egin. Barrundiako Udalean astean birritan entseguak egin dira martxora arte eta urritik aurrera.

**GERTUA IZANIK:** Marino Martinez de Albeniz Lopez de Munain jaunak, KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundearen ordezkarietan, 2020ko abenduaren 29an (2352 sarrera-erregistroa) idazkiaren bidez, abesbatza horrek 2020ko ekitaldian edukitako gastuak zuritzen ditu. Zuritutako zenbatekoa 1.848,33 €tako da.

### ZERA ERABAKITZEN DUT

**LEHENA.-** KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 1.500,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2020ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.000 partidaren pentzutan).

**BIGARRENA.-** KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari 1.500,00€tako dirulaguntza berehala ordaintzea.

**HIRUGARRENA.-** Honako erabaki hau KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 29an.

